

Denboraren makina
Duela 3.700
urteko errezetak

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Burdinazko
Gerrikoa, gerraren
harrizko aztarna

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Mugak onartzen ikastea

Asier Serrano idazleak (Eibar, Gipuzkoa, 1975) *Picassoren zaldia* poesia liburua (Elkar) eta *Eskuetan mapak* (Txalaparta) nobela argitaratu ditu berriki. Azken urteotako sorkuntzaren emaitza dira: "Ikasketa prozesuaren ondorioa dira, idazten gozatzeraz heldu naiz". Gaztaroko garai gordinak atzean utzita, pertsonak gehiago interesatzen zaizkio orain: "Gizartea azkarregi doa eta ez dugu eguneroko bizitzan eta pertsonengan ia-ia erreparatzen". Idazlea, musikaria (Lorelei taldeko arima) eta irakaslea. Literatura eta musika pribilegiotzat dauzka, irakaskuntzarekin uztartzen dituen zaletasunak: "Jende asko harritzen da haurren irakasle naizela jakitean. Nire pasioa haurrekin aritzea da ordea. Haurrek ematen dizuten maitasuna izugarria da, ez zaituzte engainatzen", adierazi digu Asier Serranok. Eibar izan dugu gure solasaldiaren lekuko. Sorterriko mugek bizitzaren mugak onartzen lagundu diotela kontatu digu.

MIKEL ASURMENDI
Argazkiak: Dani Blanco



Asier Serrano

«Adiskidantzaren gorazarrea da nobela hau»

Picassoren zaldia eta Eskuetan mapak ditugu alboan. Ba al dute elkarrekin lotura edo zerikusirik?

Liburuotan agertzen diren biktimei eta baztertuei eman diedan ahotsek nolabaiteko lotura dute. Gizarte honek baztertu dituenei ahotsa eta espazioa ematen saiatu naiz. Euskal herritar guztiok gara biktimak neurri batean edo bestean.

Zer da *Picassoren zaldia*?

Duela hamar urte hasi nituen poemak dira, erreskatatu ditudan poemak. *Picassoren zaldia* kontzeptu bat da. Irudi surrealista eta giro dekadente bat islatuko zuen kontzeptua behar nuen, egungo Euskal Herria islatuko zuen irudi bat. Hau ez da Troiako zaldia, hau zaldi garaitua da. Hemengo biztanleez hitz egin nahi nuen. Errealismoaren eta surrealismoaren arteko sinbiosia behar nuen –bizi dugun– gatazkaz hitz egiteko.

Autokritikarako poesia dela esaten badizut?

Poemek ikasi beharra adierazi nahi dute. Gure bekatu txikiez ikasten, barkamena eskatzen eta barkamena onartzen jakin behar dugula. Literaturak horretarako ere balio dezake. *Picassoren zaldian* badago autokritika ezkutua. Bertan azaltzen den pertsonaia niregandik urrun egon arren, uste dut ondo moldatuko nintzela berarekin, elkarri barkatzeko gai izango ginela.

Gauzak zalantzan jarri beharra ere ageri da.

Besteen lekuan jartzea beharrezkoa da. Poema hauek nire kezka sozialek eragindakoak dira. Orain hamar urte idatzitako poemak dira baina gertu-gertu daude. Bien bitartean, bi su-eten izan ditugu baina egoerak ez du hobera egin.

Garai hartan Zarautzen bizi zinen, Eibarrera itzuli zara aurren. Zer da Eibar zuretzat?

Fisikoki zulo bat da Eibar. Ikasle ginela mendia-
ren bestaldean zer zegoen galdetzen genion gure buruari, eta zulo honetatik bestaldean dagoena deskubritzen ikasi genuen. Irakasle naiz orain. Irakasleok ikasleen barne mugak zabaltzen laguntzeko toki paregabea da Eibar, metaforarako tokia. Eibarreko bizilagunak izugarri maite ditut, iraganeko industriaren eragina nabaria da jendearengan. Joan direneko zortzi urteak Zarautzen pasa nituen, lanean eta bizitzan, aurren itzuli naiz. Eibarren utzi nituen mamuak uxatzera etorri naiz. *Eskuetan mapak* nobelak lagundu dit horretan.

Nobelaren hitzaurrea Harkaitz Canok idatzia da: lagun zaharren nobelari egindako hitzaurrea.

“Picassoren zaldia kontzeptu bat da. Irudi surrealista eta giro dekadente bat islatuko zuen kontzeptua behar nuen, egungo Euskal Herria islatuko zuen irudi bat”.



Hitzaurrea ez ezik, nobela bera Harkaitzek niri egindako oparia da. Nire mugak ez nituen onartzen eta Harkaitzek lagundu dit horretan, nire burua idazle sentitzen... Liburua berari zor diot, berak mimatu du gehien, bera da liburuaren atzean dagoen laguna. Lubaki Bandako garaian baino harreman sendoagoa daukagu gaur egun.

Harkaitz Canoren hitz bat erabiliz: zer “errebobinatu” behar izan duzu nobela idazteko?

“Errebobinatzen” kontzeptuaren zentzua hauxe da: nobelan gorputz hartzen dutenak benetan existitutako pertsonaiak dira. Harkaitzek ondo asmatu du “errebobinatzen” kontzeptua erabiltzean. Bizitzaren zinta errebobinatzean lekuak, esperientziak eta pertsonak azaltzen zaizkizu. Pertsonaiak noski ez dira benetakoak, fikziozkoak dira.

Errealitatea fikziora moldatua.

Horrekin jolastu dut. Aitorrek –narratzaileak– kontatzen duena lagunei zor nien nolabait, bere errealitatearekin eta berak sinesten dituen gezur guztiekin. Nobelaren gaia klasikoa da: aspaldi elkartu gabeko lau lagun larunbat batean elkartzen dira zerbait egiteko. Nobela iraganera itzultzea da, adiskidantzaaren gorazarrea.

Liburuko musika taldea Zuloan da. Taldearen izena eta Eibarren izana. Gazteen arteko familia izaera edo giroa antzeman dut nobelan.

Zuloan taldeko protagonistek elkarrekin bizitzeko aukera egin dute, Bilboko pisu batera doaz, lagun izatera, lan talde izatera, lankide izatera, modu horretan ulertu behar da familia izaera.

Istorioari hasiera ematen diona *Roka* da: Mikel Rokaetxe Lasa. Nor dago pertsonaia honen atzean?

“Eibarren utzi nituen
mamuekin bakea egitera etorri
naiz, *Eskuetan mapak* nobelak
lagundu dit horretan”

“Nobelan ez da azaltzen
pertsonaia pururik, ez nuke
inoren buruarekin identifikatzen
den irakurlerik izatea nahi”

Izen horren atzean benetako pertsona bat dago, bere biziari akabera eman zion lagun baten historia. Izenen atzean eta nobelan mamu asko daude ezkutuan. Era pribatuan lagunei –hildako lagunei barne– eskainia da. Nerabe izatetik heldu izatera doan garaian, kontzientzia hartze bidean, bizitako pasadizoak dira. Eibar hiri armatua izan da, edonork egin zezakeen, nahi izanez gero, *Rokak* egin zuena.

Pertsonaia bakoitzak bere zuloa dauka, zuloa handitu ahala bertatik atera beharra daukate nolabait.

Hori da liburuaren dohaina, dohainik baldin badauka behintzat: lagunaren arteko min hori, zulotik atera beharrean berau gehiago handitzen denean, lagunaren arteko traizioak direnean, inork laguntzarik ematen ez dizunean laguntza behar izatea... Zuloan izenean metafora ugari dago: armen kanoian egoera animikoarekin lotutako uneak daude, Eibar bera da zuloa eta egoera animiko hori. Nobelan ez da azaltzen pertsonaia pururik hala ere, ez nuke inoren buruarekin identifikatzen den irakurlerik izatea nahi.

***Eskuetan mapak* izenburuak halaber, zentzua eta izana ematen dizkio nobelari.**

Lau musikari eta mundua! Bidearen eta bidaiaren kontzeptuarekin jokatu dut. Beren sinesmenak mundura zabaltzera doazen pertsonaien bidez, musikaren bitartez, furgonetaren bitartez. Laurak bat... Zentzua hor dago. Istorioan ageri den Europako ibilbidea, EH Sukarra taldearekin egin nuen 1996an. Loreleirekin ere furgoi-mobila erabili genuen. Hala ere, ez dut kronika hutsa idatzi nahi izan. Liburuak estilo lirikoa dauka, saiatu naiz afektu batzuk lortzen, zati batzuk epikotzat joko nituzke.

Segitzen duzu lagunekin harremanetan?

Bai. 1990ko hamarkadan ezagutu nuen jendearekin harreman estua izaten jarraitzen dut. Afarie-



tan elkartzen gara eta pasadizoak agertzen dira: “Zuk kontatuko duzu edo nik?” esaten diogu elkarri. Nobelan kontatzeko nuen beharra ageri da, badago bere krudeltasunean ongi pasatzeko nahia ere, ironia zorrotza, balorerik ez duten gauzez barre egiteko nahia eta benetako balorea duten gauzak gordin elkarri azaldu beharra.

Lagunek zer edo zer esango dizute, behintzat.

Gustatuko litzaidake fikzionatua azaltzen den jendearen iritzia jasotzea. Erabili ohi ditugun espresioak eta moduak islatzen ahalegindu naiz, eurek nola ulertu duten jakin nahi nuke. Saiatu naiz eszenografia horretako pertsonaiak eta eszenak ondo deskribatzen, baita maitasunezko eszenen giroa jasotzen ere. Larruzko txupa eramaten dutelako ez da zertan trakets idatzi behar, pertsonaien izaera eraikitzen gozatu dut gehien, jolasean aritu naiz.

Hizkuntzan egindako ahaleginak merezi du nire ustez.

Gazte literaturako joera eskatologikoa du nobelak, *gag*-ak, nahita erabilitako joerak dira. Hamalau urteko gazte bati interesatzen zitzaiona kontuan hartu dut, eta halaber, hogeita hamar urteko batentzat interesgarria dena. Nerabe izatetik heldu izatera doan aldia kontrastatzen saiatu naiz, nerabezaroan darabilten hizkuntza helduaroan erabiltzen dutenarekin kontrastatzen, jergak erabiltzen dituzten garaitik heldu izatera bitartean. Pertsonaien hizkuntza lantzen ere gozatu dut.

Zer moduz nobela egituratzen?

Hori da lan gehien eman didana. Estilo desberdinak nahasten dira nobelan. Gehien kostatu zaidana hariak lotzea izan da, zinemaren estilora jo dut horretarako. Besterik da asmatu dudana edo ez. Nobela garatzen disfrutatu dut edonola ere. Ordenagailuaren parean eroso sentitu naiz, beldurak kentzea gozatua izan da. Esaterako, musika grabatzean beti disfrutatu dut, orain berriz neure mugak onartzen ditut, eta nork bere



“Agian ni okerragoa nintzen, baina hori ez dizut kontatuko –esan nion amari–. Baina lasai, ez naiz Aitor protagonista”.

mugak onartuz gero, zertarako gai den edo ez, onartzen duenean, disfrutatzeko unea iristen zaio. Bizitza ikasketa prozesua da.

Zuloan taldearen familia izaera aipatu dizut ares-tian, zure benetako familiak zer esan dizu?

Amari liburua bukatzea asko kostatu zaio, asko sufritu duelako. Nire burua ikusi du Aitorren-gan: “Agian okerragoa nintzen ni, baina hori ez dizut kontatuko. Baina ez naiz Aitor, lasai” esan diot amari. Jendeak galdetzen dit: “Nobela autobiografikoa al da?”. Ez naiz horretan sartuko. Lagunen artean nahiz familian bizitako gauzak daude noski. Amak ere hauxe galdetu dit: “Horrenbeste droga zegoen garai hartan?”. “Orain gehiago dago” azaldu diot. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2111>
helbidean, gai honi buruzko bideoa

MURGIL ZAITEZTE BURDIN HARANEAN!



Bertan ikusgai:

- Euskal Burdinaren museoa
- Mirandaolako burdinola
- Artzantzaren ekomuseoa
- Ogiaren txokoa
- 50. urteetara bidaia, langileen ibilbidea
- Burdinolen taupadak ibilbidea

Urola garaia eskualdeko turismo bulegoa



Mirandaola Parkea (Legazpi)
Tel.: 943 73 04 28

www.lenbur.com

e.posta: mirandaola@lenbur.com